

“LUR ARRAROEN GARRANTZIA” ZEREGINERAKO EZTABAIDA ETA PROPOSAMENAK EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXIEGI
Gaiaren ulermena	Alderdi ekonomiko, sozial eta ekologikoak ondo ulertzen dituela adierazi du. Informazio eguneratu eta zehatza erabili du.	Ondo ulertzen du gaia, eta informazio egokia erabiltzen du, nahiz eta gehiago sakon zitekeen.	Orokorrean ulertzen duela adierazi du, baina zehaztugabetasun edo huts batzuk daude.	Ideiak nahastuta edo gaizki aurkeztu ditu. Badirudi ez duela gaia ondo ulertu.
Argudioak egitea eta eztabaidan parte hartzea	Argudioak ondo egituratu ditu, eta adibideak, datu garrantzitsuak eman ditu, eta argi azaldu du guztia. Modu aktiboan parte hartu du, eta errespetua mantendu du eztabaida osoan.	Orokorrean, argudioak argiak eta ondo egituratuak izan dira. Adibide onargarriak eman ditu. Parte-hartzea egokia izan da, baina ez da guztiz orekatua izan.	Argudioak lausoak izan dira, edo ez ditu datu asko eman. Gutxi parte hartu du, edo ez du garrantzizko parte-hartzea izan.	Argudioak nahasiak edo garrantzirik gabekoak izan dira. Ez du parte hartu, edo modu desegokian eten ditu kideak.
Kontrako argudioak ematea eta aurka egitea	Aurkako taldearen argudioei ondo egin die aurka, errespetuz eta logikaz.	Argudio egokiekin aurka egiten saiatu da, nahiz eta ez diren beti eraginkorrak izan.	Aurka egite batzuk ez ziren oso argiak, edo ez zeuden guztiz lotuta.	Ez dio ezeri aurka egin, edo garrantzirik gabeko erantzunak eman ditu.
Talde-lana eta kolaborazioa	Elkarlana bikaina izan da. Taldekide guztiek modu orekatuan egin dute lan, adeitsuak izan dira, eta momentu oro egin dute lan elkarrekin.	Elkarlana ona izan da. Gehienek modu aktiboan hartu dute parte, errespetua mantenduz.	Elkarlana irregularra izan da. Kide batzuek ez dute parte hartu, edo gatazkak izan dituzte.	Ez da lankidetzarik egon. Lana ez da taldean egin, edo jarrera kezkagarriak egon dira.
Ahozko komunikazioa eta jarrera	Modu argian adierazi dituzte gauzak, hizkera egokia erabiliz, eta intonazioa egokia izan da. Modu aktiboan entzun dute, eta errespetuzko jarrera izan dute.	Ondo adierazi dute beren burua, nahiz eta argitasunaren edo jarreraren aldetik akats batzuk egon diren.	Ahozko adierazpenean zailtasunak egon dira, edo jarrera ez da oso kolaboratzailea izan.	Hizkera ez da egokia izan, jarrera negatiboa izan da, edo maiz eten diote elkarri.
Sormena eta soluzioetarako proposamenak	Soluzio errealistak, originalak eta orekatuak eskaini dituzte. Laburtzeko gaitasun handia izan dute.	Soluzio egokiak eman dituzte, nahiz eta konbentzionalak diren.	Proposamenak lausoak izan dira, edo ez dituzte asko garatu.	Ez dute soluziorik eman, edo ez dira oso koherenteak izan.

